


GIZAESKUBIDEAK
ESKUZESKULpina



Bitxa



EGILEAK:

Castillo Suárez, Paz de Ziganda Ikastola (Villava/Atarrabia), Lizarrako Ikastola (Estella/Lizarra), Argia Ikastola (Fontellas), CPEIP Juan Bautista Irurzun (Peralta), Sunbillako Eskola (Sunbilla), Garcés de los Fayos Ikastola (Tafalla), Auzperriko Eskola (Aurizberri/Espinal), Larraintzarko Eskola (Larraintzar), Otsona Ikastetxe (Saldias), IP San Miguel (Doneztebe), Eretxun Ikastola (Viana), Amaiur Ikastola (Pamplona/Iruña), Hegoalde Ikastola (Pamplona/Iruña), Legasako Eskola (Legasa), Ibarberri Eskola (Lekunberri), Arotzenea IP (Narbarre), Tantirumairu Ikastola (Lesaka), Auzalar IP (Orkoien), San Miguel IP (Huarte Arakil).

KOORDINATZAILEA:

Irati Goikoetxea Asurabarrena (Bizikidetzeta Atalburua)

EDIZIOA:

Nafarroako Gobernua-Gobierno de Navarra
Herritarrekiko Harremanetako Departamentua
Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia

© Gobierno de Navarra-Nafarroako Gobernua

DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Horixe Diseño

ILUSTRAZIOAK: Itziar Goñi

INPRENTA: Gráficas Astarriaga S.L.

LG: NA 2769-2022



GIZAESKUBIDEAK
ESKUZESKU *Ipuina*

2022



AURKEZPENA

Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak duela hiru urte abian jarritako **“Ipuina eskuz esku Giza Eskubideak”** ekimenak laugarren edizioa ondu du aurten. Zuzendaritza Nagusiko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zerbitzuak Giza Eskubideak ardatz hartuta, urtean zehar bultzatzen dituen proposamenetako bat da, **“Memoria duten eta Bakea eta Bizikidetzaz lantzen duten Eskolak”** programaren baitan garatzen dena. Orain dela hiru urte abiatutako bidetari helduz, aurten ere, Nafarroako Lehen Hezkuntzako ikastetxe ezberdinak izan dira Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna-ren harira martxan jarritako proiektu honetako protagonistak.

2022ko urrian eta azaroan, 20 egun lektiboetan zehar, jarraipena eman zaio batetik Patxi Irurzun idazleak hasitako gaztelaniazko ipuinari eta bestetik Castillo Suárez idazleak euskaraz hasitako ipuinari. Egunero-egunero, ikastetxe bat arduratu da ipuin-kate bakoitzari lerro batzuk gehitzeaz. Ipuinaren lanketa aitzakia polita izan da Giza Eskubideak aztertu eta lantzeko, irudimena, sormena, ideia trukea, eztabaida, adostea, irakurketa eta idazketa lantzeaz gain. Proiektu komun batek elkar-tu ditu Nafarroako txoko ezberdinetako ikasleak eta harro sentitzeko

moduan dira egindako lanagatik, prozesu eraginkor batek emaitza zoragarria utzi baitu: abenturaz beteriko bi ipuin eder.

Guztira 37 ikastetxetako 1.500 ikasle pasatxok parte hartu dute 44 irakaslerekin batera. Aurreko hiru edizioetan egin zuten bezalaxe, aurten ere, parte hartu duten irakasle arduradunek balioan jarri dute bai ekimena eta baita ikasleek jarri duten gogoia eta ilusioa ere. Beraien hitzetan jarduera hau gelan landu ahal izatea oso interesgarria izan da.

Sortutako hiru ipuinak biltzen dituen ale hau, bildumako beste biak bezalaxe, Nafarroako ikastetxe eta liburutegi guztietara iritsiko da gizarteari egindako lan polita erakusteko asmoz. Irakasleek, familiek eta gizarteak, oro har, Giza Eskubideen inguruko lanketa egiteko tresna egokiak izango dira hemendik aurrera bi ipuinok.

Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak eskertu eta txalotu egin nahi du proiektu honetan parte hartu duten pertsonak azaldutako konpromisoa eta egindakoa mimoz, goxotasunez eta ilusioz egin izana. Orain, irakurle, zuri dagokizu irakurketarekin gozatzea eta irakurritakoa hausnartu eta partekatzea.

*Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia
Herritarrekiko Harremanetako Departamentua
2022eko abendua*









Batzuetan, triste nagoenean eta euria ari duenean nire bihotzean, bizikleta hartu eta errepidera ateratzen naiz. Asko daude bizikleta hartu eta ezer esan gabe batetik bestera ibiltzen direnak, alboetara begiratu gabe, begiak errepidean iltzatuta. Baina nik beti izaten dut Bitarekin topatzeko esperantza. Izan ere, Bitak beti baditu nire tris-turaren neurrira egokitzen diren hitzak. Nik galderak egin eta berak erantzun egiten ditu. Horrela aritzen gara, ping pong partida batean bezala, nekatzen garen arte. Orduan bizikletatik jaitsi eta parke batera joaten gara atsedean hartzera.

Ni askotan sentitzen naiz triste; nire herrialdean dagoen guda dela eta Ukrainatik etorri nintzen Nafarroara bizitzera duela hilabete batzuk. Nire aita gudan parte hartzen ari da eta berari zerbait gertatu dakiokela pentsatzeak dardarka jartzen nau. Bita nire lagun onena izan da beti, txirrindulari amorratua eta minbiziagatik hil zen duela urtebete. Txirrinduz ibiltzera irteten naizenean nirekin dagoela sentitzen dut eta izugarri laguntzen nau nire kezka eta arazoen aurrean aholkurik onenak emanez.

Atzo iluntzean gelakide batzuek askaria kendu zidaten, ez da lehenengo aldia egiten didatena. Besteetan bezala, parkera joan nintzen, baina atzokoa desberdina izan

zen. Han txirrindu bat ikusi nuen eta ondoan neska bat banku batean eserita. Hasieran Bita zela pentsatu nuen; bere antza izugarria zuen. Eta inoiz baino gehiago somatu nuen bere hutsa.

Neskarengana hurbildu eta triste zegoela ohartu nintzen, burumakur. Berarekin hitz egiten hasi nintzen eta ea zer gertatzen zitzaion galdetu nion. Hasieran ez zuen ezer esan; hala ere, bere ondoan esertzea erabaki nuen. Isiltasun une baten ondoren, hitz egiten hasi ginen:

–Lera izena dut eta errusiarra naiz –esan zuen neska-. Nire aita errusiarra da eta gerra batera joateko deitu dute eta nire ama hemengoa denez, bertara etorri gara guda bukatu bitartean. Amak negarrez pasatzen du eguna eta gerra zikin horren ondorioz, ni ez naute ongi tratatzen.

Zur eta lur geratu nintzen!

Denbora luzez ez genuen txintik ere esan, bi mutu ginen. Neska jatorra zirudien, baina errusiarra zen eta horrek beldurra ematen zidan, ez nintzen berarekin hitz egiteko gai.

Bat-batean, txakur baldar bat pasa zen gure aurretik, katu baten atzetik zihoan korrika eta zakarrontzi baten

kontran jo zuen. Sekulako kolpea hartu zuen! Barrez leher-
tu ginen eta Lerak kontatu zidan Errusian txakurra zuela.
Nik esan nion katuak gustuko nituela eta horri buruz so-
lasten jarraitu genuen.

Etxera bueltatzeko garaian bakoitzak bere bizikleta
hartu eta urrutitik Lerak oihukatu zidan:

-Aizu, nola duzu izena?

-Nire izena Rukitik da eta orain dela zazpi hilabete
Nafarroara etorri nintzen.

Orduan, Lerari esan nion bera eta bere ama gure
etxera etor zitezkeela, bakarrik senti ez zitezen eta elkarri
laguntzeko. Etxera gindoazela, bizilagunak ginela kontu-
ratu ginen. Agur esan baino lehen, Lerari proposatu nion
biharamunean basoan txirrinduz ibil gitezkeela.

Hurrengo goizean, bizikletaz basoan barrena gen-
biltzala, bizikletatik erori nintzen, ezin nintzen lurretik
mugitu. Momentu horretan, basozain bat agertu zen eta
laguntza eskatu genion. Basozaina herrira jaitsi zen nire
amari gertatua kontatzera. Momentu horretan, Lerari ha-
sieratik buruan nuen gauza bat kontatzea erabaki nuen.


–Lera, honako hau kontatu behar dizut: ukrainarra naiz eta nire aita gudan dago. Oso kezkatuta nago, ez da kidalako zein egoeratan dagoen. Bestalde, oso triste nago nire Ukrainako lagun onena leuzemiaren ondorioz hil zelako orain dela urte bat. Oso bakarrik sentitzen naiz –esan nuen negarrez.

Lerak oso hunkituta erantzun zidan:

–Nik ere lagun mina galdu dut gerran izandako leherketa batean. Egoera berean gaude eta ez dugu gerrarik nahi. Guk ez dugu gerra honen errurik eta gure senideak eta lagunak hiltzen ari dira. Elkarri lagunduko diogu eta bakarrik sentitzen garenean zure etxera joango gara. Mila esker Rukitik.

Nire ama laster iritsi zen eta zauri txiki bat nuela ikusi zuen beraz, etxera eraman gintuen. Mahai gainean egunkaria zegoen. Gudari buruzko albistek irakurtzean, Kiev-eko ospitaleko argazkia ikusi genuen. Bomba bat lehertu zen gertu eta zaurituak agertzen ziren. Argazkiari begiratu eta gazte bat ezaguna egin zitzaidan. Bitaren antza handia zuen. Posible al zen hori?

Harrituta geratu nintzen. Amari erakusterakoan, bera ere aho zabalik gelditu zen. Urduri jarri ginen biok.



Lerak ez zuen ezer ulertzen. Bitaren familiarekin kontaktuan jartzea erabaki genuen. Nire amak mugikorra atera eta Bitaren amaren telefono zenbakia bilatu zuen. Deitu egin zion, baina telefonoak ez zuen seinalerik ematen...

Berriz ere saiatu ginen telefonoz deitzen, baina... ez genuen zorte ona izan. Beraz, asko hitz egin ondoren, Bitaren gurasoen bila Ukrainara joatea pentsatu genuen. Tren geltokira joan eta tren hartu genuen.

Ukrainara iristean ospitalera joatea erabaki genuen. Han bilatu eta bilatu ondoren, egunkarian ikusitako mutila aurkitu genuen.

Bitaren zen?

Poliki-poliki hurbildu eta ahots leun batekin galdetu genion ea Bitaren izena zuen. Mutikoak begiak izugarri zabaldu eta esan zion Palina zela, Bitaren arreba bixkia. Hala ere batean, ospitaleko pasabidean nire aita kamila batean zaurituta zegoela ikusi genuen eta ziztu bizian harengana hurbildu ginen. Amak begietan negar malkoak zituela, zer gertatu zitzaion galdetu zion eta ea oso larria zen zeukan zauria. Bat-batean sabaia gainera erori zitzaigun... berriro ere leherketa bat!

Txikizioa, hura bai izan zela txikizioa, ospitalea paratarik gabe gelditu zen, ezin zen arnasa hartu, jendeak laguntza eskatzen zuen... zeinen egoera tristea. Isiltasun momentu batean, ahots bat entzun zen, ahots ezaguna niretzako. Ezinezkoa zen, nola iritsi zen Lera Ukrainaraino? Bai, Lera zen, nire lagun errusiarra. Halako batean, Lera tente jarri eta errusieraz hitz egiten hasi zen.

Sekula ez nuen hain aztoratua ikusi Lera eta lasaitzera joan nintzen. Txoko batean eseri ginen eta Lerak errusieraz esan zuena errepikatu zidan:

–Gera dadila gerra zikin hau. Nahikoa da hainbeste heriotza, zauri eta minekin!!!

Ondoren ospitaletik atera eta nire amak Lerari galde-tu zion nola iritsi zen Kiev-era:

–Entzun nizuenean Kiev-era abiatu behar zenutela, pentsatu nuen zuen ondoan egon behar nuela, zuei laguntzeko. Baina Ukrainan sartu ezin naizenez, erabaki nuen lehenik hegazkinez Poloniara joatea eta han pentsatuko nuela nola igaroko nintzen Ukrainara. Asko pentsatu ondoren, Kiev-era zihoan kamio bat ikusi nuen eta bertan sartzea erabaki nuen; kamioia ospitalera zihoan, bertan behar zituzten gauzak eramatera zihoan. Bidaia amarekin



egin dut, baina leherketa honen ondorioz ez dakit ama non dagoen; ospitalean egon beharko litzateke.

–Zure amaren bila joan beharko ginатеke –esan nion Lerari.

Bi lagunak ospitalean barna bila hasi ziren. Halako batean medikuak zer nahi zuten galdetu ondoren, berri txarra eman zien. Leraren ama hil egin zela esan zien.

Oso-osu triste geratu ginen. Lerak bere aitari deitu zion ama hil zela jakinarazteko. Orduan, aita etortzen saiatu zen, Lera bakarrik sentitzen delako. Amak eta biok honako hau galdetu genion:

–Gure etxera bizitzera etorri nahi duzue?

–Izugarri lagunduko liguke horrek egia esan, eskerrik asko.

Aitak ikusita alabaren ondoan egon behar zuela, bertan lana bilatzen saiatu zen.

Ukrainan egoera tamalgarria zen, eztandak, zaurituak, hildakoak, negar hotsak... Lerak eta biok ez genuela han bizitzen geratu nahi esan eta Nafarroara bueltatzea erabaki genuen. Nola, ordea? Pertsona gehiegi ginen handik ateratzeko: nire gurasoak eta ni, Lera eta aita, Palina;

zaurituta zeuden gainera... Hotzikarak sentitu genituen, baina lehenbailehen infernu horretatik ateratzeko plan bat behar genuen...

Pentsatzen hasi eta Oihanez gogoratu nintzen. Oihane Iruñeko suhiltzaile bat da, eta helikopteroak gidatzen ditu. Beraz, telefonoz deitu genion eta gure bila etortzeko esan genion. Oihane helikopteroan iritsi eta denok pozez beteta helikopterora igo ginen, baina bat-batean bonba bat entzun zen...

Pentsatu zuten arren, ez zen bonba bat izan, suziri baten soinua izan zen. Jendea etxeetatik kalera ateratzen hasi zen, ospitaleko leihoetatik gaixoak agertzen hasi ziren eskuetan zapi zuriak zituztela, haurrak parkeetan agertu ziren pozik; batzuk korrika, besteak bizikletaz txirrinak jo eta jo, denak poz-pozik eta aurpegietan poza nabaria zutelarik.

Guda bukatzen ari zen. Gu Oihaneren helikopteroan geundenean, Ukrainian su artifizialak ikusi genituen, bakearen seinale. Helikopteroa Nafarroarako bidean zen, Leraren amaren gorpurekin, Nafarroara iritsi eta bertan lurperatzeko. Bitartean, Ukrainian, gaixoak sendatzen hasi

ziren, eta bonbardaketekin suntsitutako eraikinak konpontzen hasi ziren.

Nafarroan geundela, Leraren aita erabat osatu zen eta lana aurkitu zuen. Lerak, Palinak eta hirurok eskola berean ikasten dugu eta azoka bat antolatzea bururatu zitzaigun, dirua biltzeko eta Ukrainako haurrei lagundu ahal izateko. Albistegietan, pixkanaka-pixkanaka Ukraina normaltasunera itzultzen ari zela entzuten genuen bakoi-tzean, oso pozik jartzen ginen.

Azokan diru asko lortu genuen; Leraren aitak ere diru asko irabazi zuen eta dirua Ukrainara bidali genuen laguntzeko.

Hiru familiak Nafarroan geratzea erabaki genuen eta elkarren ondoan oso pozik bizi ginen, baina zuek ez daki-zuena da, Bita eta Palina adoptatuak zirela eta beraiekin bizi ez zen hiruki bat zutela: Dimitri.

Dimitri familia errusiar batek adoptatu zuen jaio-berritan. Telebistako erreportaia batean Dimitrik Palina ikusi eta bere antza zuela konturatu zen. Izugarritzko poza hartu zuen.

Palina ezagutzeko plan bat prestatzen hasi zen. Euskal Herrira nola etorri prestatzen hasi zen, ez baitzuen Euskal Herria ezagutzen. Irrikaz zegoen bere arreba ezagutzeko.

Bere plana aurrera eramateko lehenengo pausoa Euskal Herria kokatzea izan zen. Horretarako, bere etxean arakatu ondoren, munduko mapa bat aurkitu zuen. Ederki kosta zitzaion Euskal Herria topatzea!!!! Behin topatuta, bere aitaren diru-txartela hartu eta Donostiara tren-rako txartela erosi zuen. Maleta arropaz, janariz, urez eta diruz bete eta tren-geltokira abiatu zen. Ilusioz gainezka zegoen!!

Treneko bidaia arazorik gabe egin zuen eta uste baino lehen ailegatu zen Donostiara. Bertara iritsi bezain pronto, udaltzaingoen egoitzara joan zen eta Palinarene argazkia erakutsi zien.

Udaltzaingoen ez zuten inoiz argazkiko neskaren aurpegia ikusi eta, beraz, ezin izan zioten Dimitriri lagundu. Dimitri oso goibel atera zen udaltzaingoen egoitzatik, baina ez zuela etsiko erabaki zuen. Kalez-kale, Palinarene argazkia erakutsi zion aurkitzen zuen jende guztiari. Bat-batean, emakume batek ezaguna egiten zitzaiola esan zion eta bere iloba zela esan zion harrিতuta.

25

GELTOKIA 2



Momentu horretan bertan, burrunba izugarri baten ondorioz, trenaren leihoaren beiraren kontra lo nengoela, nire gorputzak dar-dar egin zuen eta esnatu egin nintzen. Ohartu nintzen oraindik Ukrainarako bidean geundela, orain artekoa, desiatutako ametsa zela.

Kiev-eko ospitalera iritsi bezain laster, Bitaren antza zeukan mutila aurkitu genuen. Bitaren inguruan galderak egin genizkion eta ezezaguna egiten zitzaiola esan zigun. Nahiz eta, lotsa sentitzen zuela adierazi, familiakideek saldu egin zituztela aitortu zigun.

Triste nintzen bertze behin eta euria ari zuen nire bihotzean. Saldu? Erantzunak behar nituen eta bizikleta hartu nuen Bitarekin topatzeko esperantza berpiztuz. Galdera berriak egin nizkion baina ping pongeko pilota ez zen nire aldera itzultzen, Bitak ez zuen erantzuten. Amorrubiz, hau oihukatu nuen: “Bita, non zaude? Zure hutsa sentitzen dut!”

Orduan Bitaren izpiritua atera zen eta zur eta lur geratu nintzen.

–Zergatik zaude hain triste? –galdetu zidan Bitak.

–Zure hutsa sentitzen dut, izugarri –erantzun nion.

Bitá ikusita negarrez hasi nintzen. Besarkatzera joan nintzen, baina ez nuen ukitzea lortu, hala ere, bere berotasuna sentitu nuen. Bitak asko maite ninduela eta beti bere ondoan egongo nintzela esan zidan; momenturen batean bakarrik sentitzen banintzen, bere izena esan eta ondoan agertuko zela.

Kiev nola zegoen ikusita, berriro Nafarroara itzuli nintzen trenez.

Treanean nindoala ur botila lurrera erori zitzaidan eta lurrean bueltaka-bueltaka joan zen. Nire adintsuko neska ilegorri altu batek botila hartu eta bueltatu egin zidan. Betarekin hitz egiten hasi eta beratatz maitemindu nintzen.

Nire bihotzean euri egun asko izanagatik, konturatu nintzen eguzki egun asko ere bazirela eta izango zirela aurrerantzean ere.

